MAQ XP_Mise en page 1 06/04/2016 18:18 Page 1





SAR HITZA - EDITO

Jean-Pierre Harriet
Errobi Herri Elkargoko Euskara batzorde burua
Président de la commission langue basque de la Communauté de Communes ERROBI

Bruno Carrère
Errobi Herri Elkargoko Lehendakari ordea Kultura arduraduna
Vice-Président délégué à la Culture de la Communauté de Communes ERROBI

Elkartzen gaituen mintzaira bat...

Euskarak gure lurraldean duen lekuaz axolaturik eta gure hizkuntza baliatzeak sortu dezakeen gozamena agerian uzteko xedez, lehen aldikotz, Errobi lurraldeko hiru liburutegi eta mediatekak, Errobi herri elkargoko euskara eta kultura zerbitzuekin, indarrak batzeko gogoak bultzaturik, elkarlanean gogoetatu, sortu eta ekoiztu *ELEPIKA* festibalaren lehen uztarekin heldu zaizkigu.

Xedea, euskararen erabilera eta erakargarritasuna ardatz hartuz irakurketa publikoaren inguruan sortu gune horien eskaintzak biziaraztea eta sorkuntza artistikoa sustengatu, hedatu eta partekatzea da.

Testuinguru horretan, elkarlana eta zubiak sortzea, denen arteko sarea osatzea, herritarrei mota orotako eta adin orori begirako ekimen partekatuak antolatzeko premia ikusten genuen. *ELEPIKA*, elkar ezagutzeko gomita bat da, partekatzeko, loturak sortzeko, euskara eta kultura bide lagun izanik, hau baita bizirik dagoen hizkuntza batek ahalbidetzen duena.

ELEPIKA, euskaraz elekatu eta elea elikatu. *ELEPIKA* plazerra da, plazerrak itxura anitz hartzen baititu lehen edizio horretan, arnoaren inguruko gaualdi bat Uztaritzen, ipuin kontaketa Itsasun, hitzaldi umoristikoak Kanbon, Komiki-kontzertua Harri Xurin… aisiak, gogoeta, kultura, euskarak ere baditu hamaika aurpegi !

Hori da *ELEPIKA* festibalaren xedea, euskaraz goza eta orotarik pika!

Euskaraz bizi eta euskara biziarazi !

Une langue qui rassemble

Attachés à la place qu'occupe l'euskara et son usage dans notre territoire, trois bibliothèques et médiathèques du territoire et les services langue basque et culture de la Communauté de communes Errobi se sont unis, pour donner naissance à la première édition du festival ELEPIKA organisé autour de la lecture publique dans le but de faire vivre les lieux qui en sont l'émanation, en promouvant la création artistique et l'euskara comme fil conducteur.

ELEPIKA, c'est avant tout une invitation à partager, à aller à la rencontre de l'autre, à créer du lien, proposer des évènements pour tout âge et tout public, à créer des réseaux, créer une dynamique avec la langue et la culture comme point d'attache... car c'est exactement ce que permet une langue vivante comme l'euskara.

Langue et plaisir sont intrinsèquement liés, et ELEPIKA c'est le plaisir, le plaisir sous toutes ses formes, une veillée autour du vin à Ustaritz, des contes pour les enfants à Itxassou, des conférences humoristiques à Cambo, un BD-Concert à Harri Xuri… loisirs, réflexion, culture, l'euskara aussi revêt de multiples visages !

Voici donc l'objectif d'ELEPIKA, prendre du plaisir et grignoter de tout en euskara !

Vivre en euskara et faire vivre l'euskara !

Errobiko mediatekak - Les médiathèques d'Errobi

Kanboko mediateka



KANBOko herri mediateka 2002ko azaroan ireki zen. Hastapenetik, bere funtsa orori zuzendua da, bai frantsesduneri bai euskalduneri, ttipi eta handieri.

Mota ezberdinetako 27 800 dokumentu biltzen ditu orotarat, literatura, musika, prentsa edo zinema arloetan. Hauetan, 1 600 euskaraz dira. Egunero jendeen eta ikasgelen harrera frantsesez zein euskaraz egiten da.

ELEPIKA festibalaren antolaketan parte hartzea dudarik gabe onartu dugu mediatekako funtsa azpimarratzeko eta euskara zerbitzu publikoetan ere bizi dela, hedatzen dela agerian ezartzeko. Horrez gain, denek elkarrekin sortu dugun festibala da, eta ideia polita zen, motibagarria, lurraldeko mediateka eta liburutegiak, Errobiko euskara eta kultura zerbitzuekin, eskuz esku lanean ezartzea, dinamika bat sortuz, euskara eta kultura plazara ateratzeko. Eta, elkarlan horretatik sortu da ELEPIKA, gaur, adin orotako publikoari kalitatezko eskaintza aberats bat proposatzen ahal diogu.

La médiathèque de Cambo a ouvert ses portes en 2002. Depuis toujours, elle propose des ouvrages pour tous les âges, petits et grands, et pour tous, francophones comme bascophones.

Son fonds est constitué de 27 800 documents, des supports de tout type : littérature, musique, presse, cinéma, parmi lesquels 1600 sont accessibles en euskara. Nous accueillons tous les jours le public ou les écoles, en français et en euskara.

Nous avons accepté, sans aucune hésitation, de prendre part à l'organisation du festival ELEPIKA, d'une part afin de faire connaître notre fonds et d'autre part, pour mettre en évidence le fait que l'euskara est aussi présent dans les services publics et que l'on peut l'utiliser et le diffuser dans les médiathèques. D'autre part, créer et organiser un festival tous ensemble était une idée très stimulante, les bibliothèques et les médiathèques du territoire, les services langue basque et culturel d'Errobi, ont travaillé main dans la main, pour impulser une dynamique, rendre l'euskara et la culture visibles et accessibles, pour tous. C'est de ce partenariat qu'est né ELEPIKA et ainsi nous pouvons aujourd'hui vous proposer une offre riche et de qualité.

Sylvie Dupon
(arduraduna - responsable)

Itsasuko liburutegia



ITSASUko liburutegia boluntario batzuen nahiak sortu zuen. Irakurle amorratuak izanik, itsasuarrei liburuen maitasuna eman nahi izan diete. Hori 90 hamarkadan gertatu zen eta lehengo mutil eskolan kokatu ziren. Honela ospatu zen ITSASUko herri liburutegiaren sortzea, «Herrian Bizi» elkarteak kudeaturik. «Herriko Etxea-Posta» eraikina eraiki zelarik, herri liburutegi baten sortzeko gogoetak abiatu ziren.

2000. urtean, hautetsiek liburutegiak herri kudeaketa izanen zuela erabaki zuten. Herriko Etxeak euskararekin duen engaiamendua ez da gaurkoa, adibidez, euskararen presentzia eta erabilera hobetzeko EEP eta ERROBI herri elkargoaren partaidetzarekin hitzarmena badu.

Liburutegiak, euskarazko liburu eskaintza bat badu, eta ezagutarazi nahi genuke. Bestalde, Itsasuko hiru eskolak (publikoa, pribatua eta ikastola) liburutegira etortzen direnean, euskarazko ipuinak kontatzen dizkiegu, hiru eskoletan euskaraz ikasten delako. Eta zer poza, haurren begietan, euskararen bidez eginarazten dizkiegun bidaiak sortzen duten distira ikustea!

ELEPIKAN parte hartzea erabaki dugu, liburutegia beste modu batez biziarazteko eta bereziki euskal mintzairaren inguruan antolatua delako, herrian euskaldunak badirelako eta denek elkarrekin euskararen eta kulturaren inguruan momentu goxo baten eskaintzeko gogoa dugulako eta euskarak belaunaldien arteko lotura bermatzen duelako. Bestalde, euskararen izaera ludikoa agerian utzi nahi izan dugu, euskara ez baita soilik ikasten den hizkuntza bat, baina goxatzeko baliatzen den hizkuntza bat, eguneroko bizian espazio guzietan zabaldu behar den hizkuntza bat.

La bibliothèque d'Itxassou a été créée par des bénévoles dans les années 90, amoureux des livres et désireux de transmettre leur passion.

A la construction du nouvel édifice abritant la mairie, une réflexion fut initiée dans le but de créer une bibliothèque municipale.

Ainsi, les élus décidèrent de prendre en charge la gestion de la bibliothèque. La mairie s'est engagée il y a déjà longtemps dans une démarche de ré-appropriation de la langue basque, ainsi, dans le cadre d'un contrat de progrès, elle est signataire d'une convention avec l'OPLB et la Communauté de communes Errobi.

La bibliothèque a donc tout naturellement proposé des livres en euskara, que nous souhaitons aujourd'hui mieux faire connaître. D'autre part, nous accueillons les trois écoles bilingues et immersives d'Itxassou, nous leur racontons des histoires en euskara, quel plaisir de voir briller les yeux de ces enfants qui vivent au travers des livres des aventures en euskara !

Nous avons décidé de prendre part à ELEPIKA pour faire vivre, d'une autre façon, notre bibliothèque. Nous avions envie de proposer un moment où l'euskara et la culture seraient au centre et un vecteur de lien intergénérationnel.

Nous souhaitons également mettre en évidence l'importance de l'aspect ludique de la langue, une langue qui n'est pas uniquement une langue d'apprentissage, mais une langue avec laquelle nous pouvons prendre du plaisir, et qui doit occuper tous les espaces de la vie quotidienne.

Camille Alzuri
(arduraduna - responsable)

Uztaritzeko mediateka



UZTARITZEko mediatekak 20 000 bisitari baino gehiago hartzen ditu urtean. Bere kolekzioak 18 000 dokumentu biltzen ditu, hauen artean 2300 euskaraz direnak. Gure animatzaileek eskoletan eta erretira etxeetan parte hartzen dute eta nini irakurleentzat animazioak proposatzen dituzte.

Itxura guzietatik kanpo, gure mediateka esparru bizi eta sendo bat da. Jakintzaren, transmisioaren, elkar partekatze eta harreman gune, euskarak garrantzia handia daukan leku bat da. Hemen euskaraz mintzatzen da, irakurtzen da, kontatzen da. ELEPIKA paregabeko aukera bat da, gure lurraldean liburuaren eta euskararen inguruan dinamika baten sortzeko. Iniziatiba horri esker, lotura bat sortuko du eragileen artean eta gure ateak irakurle berri batzuei irekiko dizkiegu.

La médiathèque d'Ustaritz reçoit plus de 20 000 visiteurs par an. Ses collections sont riches de 18 000 documents dont 2 300 en euskara. Nos animatrices interviennent dans les écoles, les maisons de retraite et nous proposons des animations pour les bébés lecteurs.

Loin des clichés, notre médiathèque est un espace vivant et chaleureux. Lieu de savoir, de transmission, elle est également un lieu d'échanges et de partage où l'euskara occupe une place importante, ici il se parle, se raconte, se lit.

ELEPIKA est une belle opportunité de développer sur notre territoire une dynamique autour du livre et de l'euskara. Cette initiative va permettre de créer du lien entre les différentes structures et d'ouvrir nos portes à de nouveaux lecteurs.

Patricia Bétachet
(arduraduna - responsable)

MAQ XP_Mise en page 1 06/04/2016 18:18 Page 4

Maiatzaren 13an, ortziralea
Kanboko mediatekan
Vendredi 13 mai
Médiathèque de Cambo-les-Bains

19:00
- Urririk - Gratuit
- Publiko ororentzat - Tout public



Euskaldunak XXI. mendean: nola aldatu(ko) diren gauzak kamarada !

Les bascophones du XXIè siècle : les choses (v)ont bien changé(er) camarade !

Kike Amonarriz

XX. mende erditik euskarak eta euskal komunitateak funtsezko aldaketak bizi izan ditu: ezaugarri sozioekonomikoak, hizkuntza bera, globalizazioa, teknologia berriak, eta bestelako faktoreek gure errealitate soziolinguistikoaren eraldaketan eragin handia ukan dute. Hizkuntzaren egoera eta etorkizunari buruzko irakurketa eskainiz, Kike Amonarriz soziolinguista, umorista eta kazetariak, gogoetarako bideak irekitzeko gomita luzatzen digu, molde dinamiko eta harrigarrian.

La conférence évoquera les évolutions de la langue basque et de la communauté bascophone au cours de ces dernières décennies. Kike Amonarriz, linguiste, humoriste et journaliste nous invite à la réflexion, de façon dynamique et étonnante.

Maiatzaren 14an, larunbata,
Uztaritzeko mediatekan
Samedi 14 mai
Médiathèque d'Ustaritz

18:00
- 5€
- Izena eman maiatzaren 7a aitzin (toki kopuru mugatua) - **Inscription avant le 7 mai** (nombre de places limité) : **05 59 93 17 75**



Arno dastaketa - lehen irakaspena

Initiation - dégustation de vin

Jenofa Irubetagoyena : oenologoa - oenologue

Arno bat ez da soilik «edaten», dastatzen eta gozatzen da.
Hizkuntza eta plazerra erabat lotuak dira, eta ororen gainetik gustuaz ari girelarik.Dastamenak, bidai baten egiteko gomita luzatzen digu, arno ekoizleen lurraldeak zeharkatzen ditugu, aromak, usainak, koloreak…bidelagun.
Arno dastaketak elkartzeko aitzakia eskaintzen digu, Proust-en Madalena bezala, arnoak sortarazten dizkigun sentipenen partekatzeko, trukatzeko, giro onean, eta euskara mihien arteko zubia.

Un vin ne se "boit" pas uniquement, il se goûte et s'apprécie avant tout.
Langue et plaisir sont intrinsèquement liés, d'autant plus quand il s'agit du goût.
La dégustation invite au voyage, à travers les régions viticoles, et à se laisser aller à la découverte des arômes, des odeurs, des couleurs.

20:30
- Helduentzako ikuskizuna
- Spectacle pour adultes



IN VINO FABULA

Koldo Amestoy : kontalari /conteur
Pantxix Bidart : musikari-kantari / musicien-chanteur

In Vino Fabula, mahasti eta arno…
In Vino Fabula, arnoaren munduaren inguruan dabiltzan kontakizun, musika eta kantuak lotzen dituen ikuskizuna da.
Musikaria idazki eta olerkiekin jostatzen da, moldatzeko bere musika ttipia...
Kontalaria mitologia eta literaturako aipamenekin jolasten da, berridazteko bere ixtorio ttipia …
Arno on baten gisako ikuskizuna, oparo eta sendoa !

In Vino Fabula, de la vigne et du vin…
Spectacle en duo, récits, chants et musiques, In Vino Fabula est un spectacle qui mêle récits, musiques et chants en lien avec le monde du vin. Un spectacle généreux et charpenté comme un bon vin !

Cumulus vini, periculosus curae est.

Erreserbak - *Réservations :*

- **Itsasuko liburutegia -** *Bibliothèque d'Itxassou :* **05 59 29 75 36**
- **Kanboko mediateka -** *Mediathèque de Cambo-les-Bains :* **05 59 93 50 70**
- **Uztaritzeko mediateka -** *Mediathèque d'Ustaritz :* **05 59 93 17 75**
- **Harri Xuri kulturgela - Salle Culturelle : 05 59 55 58 43**

Maiatzaren 17an, asteartea
Luhusuko Harri Xuri gelan
Mardi 17 mai
Salle Harri Xuri de Louhossoa

20:30
- 5€
- 13 urtetik goiti - A partir de 13 ans


© Philippe Grasset

BOLADA TXARREAN

Komiki-Kontzertua, The Hyènes taldearen eskutik

BD Concert par le groupe The Hyènes

Thierry Murat & Rascal-en "Au vent mauvais" komikiko marrazkien ondoan, road-movie bisuala, iluna, hunkigarria, irrigarria eta etsitua orkestratu du The Hyènes taldeak. Zoragarria.
Presondegitik atera berri den gizon batek sakeleko telefono bat aurkitzen du. Telefonoaren jabe ezezagunaren ahotsak xarmaturik, emakume honi telefonoa itzultzera doa gizona. Ohiz kanpoko ikusgarri hibridoa da... Bideo muntaketa honetan, liburuko irudi eta testu guztiak berriz hartzen ditzute eta «diaporama» dinamiko baten formarekin pantaila erraldoi batean erakusten dituzte. Zinemako ohiko teknika bereziekin, pantailan, komikiko laukiak iragaten dira: zoom, travelling, urtze kateatuak, eta abar... Oholtza gainean, pantailaren ondoan eta ilunpean, kontakizunaren erritmoa segituz musikariek zuzenean jotzen dute.
60 minutuz ikuslea irakurle bilakatzen da. Ikusmenak, musikak eta literaturak eskaini emozio azkarrak biziko ditu publikoak.

D'après la bande dessinée Au Vent Mauvais, de Thierry Murat & Rascal, sur une musique originale jouée par le groupe The Hyènes.
Un BD-Concert, c'est quoi ? C'est un spectacle hybride et hors normes... Un montage vidéo reprend l'intégralité des images et des textes du livre sous la forme d'un « diaporama » dynamique projeté sur un écran géant. Sur la scène, à côté de l'écran dans la pénombre, les musiciens jouent en direct au rythme du récit. Pendant 60 minutes, le spectateur devient lecteur ! Emporté par une émotion à la fois visuelle, musicale et littéraire.

Maiatzaren 18an, asteazkena
Itsasuko liburutegian
Mercredi 18 mai
Bibliothèque d'Itxassou

16:00
- Urririk - Gratuit
- 5 urtetik 105 urte arterainokoentzat - De 5 à 105 ans



KRAKALDIA

Eleka Konpainia (Jokin Irungaray - Kattalin Sallaberry)

Krakada aitzineko bat,
Eleka Konpainia heldu zaigu ipuin sorta berri batekin. Badu hamar bat urte orain bi kondalariek Euskal Herriko eta mundu guziko ixtorioak biltzen dituztela. Gero, ipuinaldiak eskainiz, plazer hartzen dute haurrak eta jende heldua oren batez bidaiarazten euskara hutsean.

Un petit avant-goûter,
Contes en basque à 2 voix, avec Jokin Irungaray et Kattalin Sallaberry de la compagnie Eleka.

Maiatzaren 21an, larunbata
Kanboko mediatekan
Samedi 21 mai
Médiathèque de Cambo-les-Bains

11:00
- Urririk - Gratuit
- Publiko ororentzat - Tout public



KOMIKIAREN MINTZAIRA

LE LANGAGE DE LA BD

Asisko Urmeneta : komiki marrazkilaria - illustrateur de BD

Asisko Urmenetak komiki bat osatzeko jarraitubeharreko pausuak, komikien ezaugarri nagusiak ezagutzeko eta komikilarien lanen aurre-aurkezpena azaltzen dituen hitzaldi bat eskainiko digu : gidoia, hizkera informala, klasikoen altxorra, istoriborda, zirriborroak, planoak, espresioak… Hitzordua hartua beraz, umorez beteriko hitzaldi batentzat.

Asisko Urmeneta, partagera avec nous son savoir-faire en tant qu'illustrateur de BD.
Le langage de la BD, les caratcéristiques d'une BD, du scénario au storybord, du brouillon à l'aboutissement…

Aste osoan zehar Uztaritzeko San Frantses Xabier ikastetxeko ikasleek Asisko Urmeneta, Mattin Irigoyen eta Adur Larrearen "Okatxu, hegal egiten" komikiaren inguruan egindako lana eraguskai ezarriko dute Kanboko mediatekan.

Tout au long de la semaine, les élèves du Collège Saint François Xavier d'Ustaritz exposeront à la médiathèque de Cambo le travail qu'ils ont réalisé sur la BD "Okatxu, hegal egiten" d'Asisko Umeneta, Mattin Irigoyen et Adur Larrea.

- **Itsasuko liburutegia - *Bibliothèque d'Itxassou :***
Pilota plaza - *Place du Fronton*
64250 ITSASU - *ITXASSOU*
- Tel : 05 59 29 75 36

- **Kanboko mediateka - *Mediathèque de Cambo-les-Bains :***
Herriko Etxeko etorbidea 14
14, avenue de la Mairie
64250 KANBO - *CAMBO-LES-BAINS*
- Tel : 05 59 93 50 70
- mediatheque@mairie-cambolesbains.fr

- **Uztaritzeko mediateka - *Mediathèque d'Ustaritz :***
Lapurdi Zentroa - *Centre Lapurdi*
64480 UZTARITZE - *USTARITZ*
- Tel : 05 59 93 17 75
- mediatheque@ustaritz.fr

- **Harri Xuri Kulturgela - Salle culturelle :**
64250 LUHUSO - *LOUHOSSOA*
- Tel : 05 59 55 58 43
- hameka@cc-errobi.fr

ERROBI HERRI ELKARGOA
Communauté de communes ERROBI
ZA Alzuieta Lan eremua - CS40041
64250 ITSASU - ITXASSOU
Tel : 05 59 93 50 77 - www.errobi.fr

ELEPIKA

Errobiko mediateken Euskarazko festibala

L'Euskara fait son festival dans les médiathèques d'Errobi

Itsasu ● Kanbo ● Uztaritze

2016ko maiatzaren 13tik 21era
Du 13 au 21 mai 2016



Ville de Cambo-les-Bains — Kanboko Herria
COMMUNE D'USTARITZ — UZTARITZEKO HERRIA
itsasu
Errobi herri elkargoa communauté de communes